



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GIZARTE  
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN  
FAKULTATEA

FACULTAD  
DE CIENCIAS SOCIALES  
Y DE LA COMUNICACIÓN

# GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA

**Ikus-entzunezko Komunikazioa / Kazetaritza / Publizitatea eta  
Harreman Publikoak / Soziologia / Politika Zientzia eta Kudeaketa  
Publikoa / Gradu Bikoitza: Ikus-entzunezko Komunikazioa + Kazetaritza /  
Gradu Bikoitza: Kazetaritza + Publizitatea eta Harreman Publikoak /  
Gradu Bikoitza: Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa + Soziologia**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

# Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



Ikus-entzunezko Komunikazioa **6. or.** / Kazetaritza **8. or.** / Publizitatea eta Harreman Publikoak **10. or.** / Soziologia **12. or.** / Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa **14. or.** / Gradu Bikoitza: Ikus-entzunezko Komunikazioa + Kazetaritza **16. or.** / Gradu Bikoitza: Kazetaritza + Publizitatea eta Harreman Publikoak **18. or.** / Gradu Bikoitza: Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa + Soziologia **20. or.**

# Komunikazioko eta gizarte zientzietako etorkizuneko profesionalak prestatzen ditugu

Gaur egungo testuinguru konplexuak gizarte premia berriei erantzuten dakiten profesionalak eskatzen ditu. Inguruan dauzkagun komunikazio testuinguruaren eta gizarte errealitatearen hainbat arlori buruz gogoeta egiteko eta ikertzeko prestatzen ditugu gure ikasleak.

Fakultateak gizarte konpromiso argia du. Gizartean proiektioa duten hainbat ekimenetan parte hartzen dugu, eta ekimen horietan hedatzen ditugu, halaber, gure jarduerak, helburu horretarako sortutako proiektuak eta erakunde sareak erabiliz.



## FAKULTATEA ZENBAKITAN

600

plaza mugikortasun programetan

5 + 3

gradu gradu grados

900

plaza praktiketarako

10

master

+300


irakasle

6

doktorego programa

+40

profesional administrazio eta zerbitzuen arloan



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa, z/g.  
48940 Leioa · Bizkaia

946 012 353

[gkz.idazkaritza@ehu.eus](mailto:gkz.idazkaritza@ehu.eus)  
[www.ehu.eus/eu/web/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea](http://www.ehu.eus/eu/web/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea)

 [@upvehu\\_gkz\\_csc](https://twitter.com/upvehu_gkz_csc)

 [@upvehu.gkz.csc](https://www.facebook.com/upvehu.gkz.csc)

 [@upvehu\\_gkz\\_csc](https://www.instagram.com/upvehu_gkz_csc)

 [UPV/EHU](https://www.linkedin.com/company/UPV/EHU)

 [UPV/EHU](https://www.youtube.com/UPV/EHU)

 [UPV/EHU](https://www.tiktok.com/UPV/EHU)

## GURE AZPIEGITURAK

### Irakaskuntzarako guneak:

- 38 ikasgela
- 11 mintegi
- 11 ordenagailu gela

### Ikasleek beren kabuz erabiltzeko guneak:

- Ordenagailu gelak
- Banaka ikasteko gela
- Talde lanerako gela
- Ikerketarako gela

### Beste gune batzuk:

- Bederatzi irrati laborategi, argazkigintzako laborategi bat, audioko posproduktzioarako gela bat eta bideo posproduktzioarako bost gela
- Telebista plato bat, berrogeita hamar edizio postu baino gehiago bideo digitalerako, etab.
- Gesell laborategi bat (behaketa-ganbera)
- Mailegua: ikus-entzunezko materialaren mailegua
- Entzunaretoa
- Jantokia

## MUGIKORTASUN PROGRAMAK

**SICUE**  
Espainiako Estatuko unibertsitateak

**ERASMUS +**  
Europako unibertsitateak

**Latinoamerika eta beste norako batzuk**

- 2. mailatik aurrera
- Lauhileko edo ikasturte osoa



[Hemen](#) aurkituko duzu ikastegi honetako mugikortasun-programen informazio guztia.

## PRESTAKUNTZA DUALA

Gure gradu guztiek dute prestakuntza dualeko ibilbidea; prestakuntza horrek kontratu baten bidez erakunde/enpresa batean egiten diren formakuntzaaldiak eta unibertsitateko prestakuntzaaldiak uztartzen ditu.

- Helburua: ikasleen gaitasunak profil profesionalarekiko koherentziaz garatzea, inguruko enpresen eta erakundeen beharretara egokituta.
- Egonaldia enpresan: hautazko 48 kreditu eta Gradu Amaierako Lanaren nahitaezko 12 kreditu.

# Zure talentu pertsonala eta profesionala garatzen lagunduko dizugu.



## IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

### **Gradu guztiak:**

Oinarrizko irakasgaiak, nahitaezkoak eta hautazkoetako batzuk euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira.

UPV/EHUren Eleaniztasun Planari esker, irakasgai ugari ingelesez ematen dira, eta batzuk frantsesez.

### **Gradu Amaierako Lana:**

Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

## UNIBERTSITATEKO PRAKTIKAK

- Praktikak komunikazio eta publizitate agentzietan, ikus-entzunezko ekoiztetxeetan, enpresetako komunikazio sailetan, GKEetan, alderdi politikoetan...
- Hiru praktika hitzarmen ere eskatu ahal izango dituzu hiru erakunde desberdinetan.
- 6 krediturekin aitortutako praktikak
- Gutxienez 180 ordu / Gehienez 450 ordu


## PRESTAKUNTZA OSAGARRIA

Graduetako bakoitzean, Fakultateak prestakuntza espezializatuko ikastaroak eskaintzen ditu, graduan bertan irakasten diren edukiekin zerikusia duten hainbat arlori buruzkoak. Ikastaro horiek graduko irakasgaien osagarriak dira, eta, hortaz, hautazkoak dira, eta doakoak, izena eman nahi duten ikasleentzat.

## NON ESKAINTZEN DIRA GURE GRADUAK?



LEIOA



# Bizi Bizkaiko Campusa!



+22.000 ikasle



9 ikastegi

1 Ikastetxe Nagusi



1 unibertsitate egoitza

Ostatu zerbitzua:  
ostatua aurkitzen  
lagunduko dizugu



6 biblioteka



Kultura, musika eta  
arte jarduerak



1 kiroldegi  
Itunpeko kirol  
zentroak



Ikasi hizkuntzak  
Hizkuntza  
egiaztagiriak



Enplegu Gunea

# IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOKO GRADUA



## Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

«Hedabidea da mezua» Marshall McLuhan komunikazioaren teorikoaren sententzia ezaguna seguruenik ez da inoiz izan hain esanguratsua. Ikus-entzunezko komunikazioa azkarren aldatzen ari den arloetako bat da eta horregatik da hain beharrezkoa ikus-entzunezkoen arloko profesional gaitu eta trebatuak egotea.

Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua prestatu egingo zaitu ikus-entzunezko proiektu berritzaileak sortu eta gauzatzeko egungo formatu eta euskarrietan (internet, telebista, irratia digitala eta multimedia eta transmedia teknologia berriak, besteak beste). Bestalde, Ikusizkoen Ikasketetan edo Multimedia Produktzioa eta Errealizazioan espezializatu ahal izango zara, aukeratu duzun aipamen edo ibilbidearen arabera.

Irrati eta argazki laborategiak, telebista platoak, bideo ediziorako gelak, audio eta bideo digital postproduktzio laborategiak eta grabaziorako ENG ekipo osoak, ikus-entzunezko komunikazioko espezialista bilakatzeko bidean, zure esku izango dituzun baliabideetako batzuk baino ez dira.

**Pertsona sortzaile eta berritzailea bazara, ikus-entzunezkoen eta teknologia berrien mundua oso gustuko baduzu, eta ikasteko gogotsu eta ikus-entzunezko proiektuek berekin dakartzaten erronketan murgiltzeko prest bazaude, Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua da zure lekua.**



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

## Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Ikus-entzunezko komunikazioaren teoriak ulertu eta praktikan jartzeko, arloko ohitura profesionaletan esperientzia lortzeko, gertaerak eta proiektu komunikatiboak modu kritikoan aztertu eta baloratzeko, ikus-entzunezko komunikazioko eduki eta prozesuak garatzeko, iturri desberdinetako informazioa aztertzeko, erraztasun eta eraginkortasunez komunikatzeko, talde lanerako gaitasunak garatzeko, eta ikus-entzunezko arazoei aurre egiteko irtenbide sortzaileak aplikatzeko.

## Irteera profesionalak:

Hedabideetan, produktoretan, multimedia enpresetan eta komunikazio agentzietan, besteak beste:

- Ikus-entzunezkoen zuzendaritza eta errealizazioa
- Ikus-entzunezkoen produktzioa eta kudeaketa
- Ikus-entzunezko edizioa eta postproduktzioa
- Ikus-entzunezko edukien eta multimedia edukien sorrera eta garapena
- Ikus-entzunezko edukien eta multimedia edukien programazioa
- Gidoigintza
- Kamera eta soinu operadorea

Eta irakaskuntzan eta ikerkuntzan ere bai.



## NAZIOARTEKOTZEAREN AITORPENA

Titulazio honek Unibasq-en Kalitate Zigilua du; beraz, nazioartekotasun-ibilbidea egin ahal izango duzu eta zure espedientearen aitorpen hori lortu.

---

## IKASKETA PLANA

---

### LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Ingurune Ekonomikoaren Analisia
- Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala
- Ikus-entzunezko Hizkuntza
- Berrien Idazkera
- Euskararen Erabilerak Komunikabideetan

#### 2. lauhilekoa

- Komunikazioa eta Publizitatea: Pertsuasio-estrategiak
  - Komunikazioari Aplikatutako Estatistika
  - Informazio Generoak
  - Gaur Egungo Munduaren Historia
  - Ikus-entzunezko Sormen Teknikak
- 

### BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Web Edukien Idazkera eta Sorkuntza
- Dokumentazio Iturrien Kudeaketa
- Ikus-entzunezko Narratiba
- Ikus-entzunezko Sormen Prozesuak
- Zinema Klasikoaren Historia

#### 2. lauhilekoa

- Pentsamendu Politikoaren Historia
  - Komunikazioko Ikerketa Metodoak
  - Irrati Ekoizpena eta Errealizazioa
  - Zinema Modernoaren eta Garaikidearen Historia
  - Komunikazioaren Teoriak
- 

### HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 36 kreditu + hautazko 24 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Gidoigintza I: Fikzioa
- Errealizazioa I

#### Hautazkoak

- Diseinu Grafikoa eta Multimedia Inguruneak (2A)
- Diskurtso Dokumentalaren Formak (1A)
- Bitartekaritzak eta Komunikazioa
- Pertsona Arteko eta Taldeko Komunikazioa
- Audio (M2)

#### 2. lauhilekoa

- Informazioaren Zuzenbidea
- Nazioarteko Harremanak
- Gidoigintza II: Ez-fikziozko Programak
- Errealizazioa II

#### Hautazkoak

- Estetika Korrante Garaikideak (1A)
- Zuzendaritza Artistikoa (2A)
- Euskara eta Euskal Kultura

#### Prestakuntza Duala \*

---

### LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 24 kreditu + hautazko 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Ikusizko Formen Analisia
- Ekoizpenaren Kudeaketa

#### Hautazkoak

- Dokumentalen Errealizaziorako Tailerra (2A)
- Bideosormena eta Bestelako Jarduera Esperimentalak (2A)
- Ikus-entzunezko Diskurtsoak eta Beren Dimentsio Mitikoa (1A)
- Komunikazioa Euskaraz: Ahozko Adierazpena Komunikabideetan

#### 2. lauhilekoa

- Komunikazioaren Egungo Joerak
- Komunikazio Sistemaren Egitura

#### Hautazkoak

- Zinema Espainiarra: Zinema Nazionalak, Nortasunak eta Erbesteak (1A)
- Irudia, Generoa eta Nortasuna (1A)
- Programazio Estrategiak

#### Prestakuntza Duala \*

#### GRADU AMAIERAKO LANA \*

---

\* Unibertsitatea-Enpresa Prestakuntza Duala egiten duten ikasleek nahitaez enpresan egin beharko dituzte irakasgai hauek eta GRADU AMAIERAKO LANA.

---

### AIPAMENAK

- Ikusizkoen Ikasketak (1A)
  - Multimedia Produksioa eta Errealizazioa (2A)
- 

### IBILBIDEA

- Prestakuntza Duala Unibertsitatea-Enpresa
-



## KAZETARITZAKO GRADUA

### Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Hedabideak ezinbestekoak izan dira, eta oraindik ere badira, gizarte modernoaren funtzionamendua ulertzeko. Egun, informazioak zenbaitetan kezkatzeko moduan gainezka egiten digun honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da komunikazioaren arloko etorkizuneko profesionalentzako kalitatezko prestakuntza.

Kazetaritzako Gradua beharrezko trebakuntza emango dizu XXI. mendeko komunikazio korporatiboak eta hedabideek behar dituzten zeregin profesionalean aritzeko. Ikasketa planak prestakuntza teoriko sendoa eta erabateko trebakuntza praktikoa uztartzen ditu, etikaren ikuspegitik. Irrati, telebista, prentsa, eta interneteko tresna profesionalak eta multimedia teknologia berriak irizpidez erabiltzen ikasiko duzu.

Eta Komunikazioaren Arloko Zuzendaritzako aipamena eskuratu ahal izango duzu, ibilbide hori interesatzen bazaizu.

**Jakingura handiko pertsona bazara, zure inguruan gertatzen dena interesatzen bazaizu, analisi kritikorako gaitasuna baduzu edo gaitasun hori garatu nahi baduzu, historiaren bertsio bakar batekin konformatzen ez bazara eta komunikazioaren mundua oso gustuko baduzu, zalantzarik gabe, Kazetaritzako Gradua gogoko izango duzu.**



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

### **Titulazio honek gaitasuna emango dizu...**

Komunikazioaren teoriak ulertzeko, gizarte prozesuak eta gertaerak aztertu eta azaltzeko, informazio lanei kazetaritza genero eta formatu desberdinak aplikatzeko, iturri desberdinetako informazioa aztertzeko, edukiak forma eta estrategia narratiboetara moldatuz, hedabide desberdinetako edukien alderdi formal eta estetikoak diseinatzeko, ahoz zein idatziz erraztasun eta eraginkortasunez komunikatzeko, eta informazio edo komunikazio proiektuak behar bezala planifikatzeko eta kudeatzeko.

### **Irteera profesionalak:**

Hedabideetan, ekoizpen etxeetan, komunikazio agentzietan, enpresa eta erakundeetako komunikazio kabinetetan:

- Erredakzioa idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideetan
- Programa, erreportaje, gidoi, eta abarren zuzendaritza eta produkzioa
- Editore grafikoa
- Web atarien kudeaketa eta edizioa
- Prentsa bulegoen edo erakundeetako komunikazio bulegoen zuzendaritza
- Komunikazioaren arloko aholkularitza
- Komunikazioaren arloko zuzendaritza
- Transmedia komunikazioa
- Multimedia edukien edizioa, produkzioa eta kudeaketa
- Interneteko gizarte kazetaritza parte hartzailea

Eta irakaskuntzan eta ikerkuntzan ere bai.



---

## IKASKETA PLANA

---

### LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Ingurune Ekonomikoaren Analisia
- Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala
- Ikus-entzunezko Hizkuntza
- Berrien Idazkera
- Euskararen Erabilerak Komunikabideetan

#### 2. lauhilekoa

- Komunikazioa eta Publizitatea: Pertsuasio-estrategiak
- Komunikazioari Aplikatutako Estatistika
- Informazio Generoak
- Gaur Egungo Munduaren Historia
- Ikus-entzunezko Sormen Teknikak

---

### BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Web Edukien Idazkera eta Sorkuntza
- Dokumentazio Iturrien Kudeaketa
- Informazioa Irratian
- Konstituzio Zuzenbidea
- Kazetaritzaren Teknologia

#### 2. lauhilekoa

- Multimedia eta Transmedia Narratibak
- Gizarte Komunikazioaren Historia Orokorra
- Informazioa Telebistan
- Komunikazio Teoriak
- Deontologia eta Hedabideak

---

### HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 36 kreditu + hautazko 24 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Interpretazio Generoak
- Fotokazetaritza
- Komunikazio Bulegoak
- Kazetaritza Diseinuaren Oinarriak

#### Hautazkoak

- Ikusizko Kazetaritza
- Gizarte Kazetaritza Parte-hartzailea
- Marketin Digitala (1A)

#### 2. lauhilekoa

- Informazioaren Zuzenbidea
- Nazioarteko Harremanak

#### Hautazkoak

- Bozeramaileen Prestakuntza (1A)
- Ekintzaitza Komunikazioan
- Euskara eta Euskal Kultura

#### Prestakuntza Duala \*

---

### LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 24 kreditu + hautazko 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Informazio Lokuzioa
- Erreporterismoa

#### Hautazkoak

- Komunikazioaren Kudeaketa Nazioarteko Erakundeetan (1A)
- Kazetaritza Edizioa
- Komunikazioa Euskaraz: Ahozko Adierazpena Komunikabideetan

#### 2. lauhilekoa

- Iritzi Generoak
- Kazetaritza Espezializatua

#### Hautazkoak

- Idatzizko Adierazpena Komunikabideetan
- Ikerketa Kazetaritza
- Pentsamendu Politikoaren Historia
- Komunitate Birtualen Kudeaketa (1A)
- Komunikazio Publikoaren Zuzendaritza (1A)

#### Prestakuntza Duala \*

#### GRADU AMAIERAKO LANA \*

#### Hautazko irakasgaiak: 3. maila eta 4. maila

- Tokiko Hedabideak: Informazio Produktua Sortzea (1. lauhilekoa)
- Espainiaren eta Euskadiren Gaur Egungo Historia (2. lauhilekoa)

\* Unibertsitatea-Enpresa Prestakuntza Duala egiten duten ikasleek nahitaez enpresan egin beharko dituzte irakasgai hauek eta GRADU AMAIERAKO LANA.

---

## AIPAMENA

- Komunikazioaren Arloko Zuzendaritza (1A)

---

## IBILBIDEA

- Prestakuntza Duala Unibertsitatea-Enpresa

# PUBLIZITATEKO ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO GRADUA



## Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Publizitatea komunikazio bide ordezkaezin bilakatu da egungo testuinguru ekonomiko eta sozialean, enpresa eta erakunde xumeen ere, beren aurrekontuaren zati bat bideratzen dute publizitateko eta harreman publikoetako ekintzetara.

Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduak prestakuntzarekin gai izango zara komunikazio kanpaina integralak diseinatu eta sortzeko, eraginkorrek eta XXI. mendeko hedabideetara egokituak (internet, telebista, irratia, zinema, multimedia teknologia berriak eta telefonia mugikorra). Era guztietako proiektu profesionalak egiten ikasiko duzu publizitate formatu desberdinetan eta bi aipamen edo ibilbide izango dituzu espezializatzeko: Komunikazioaren Arloko Zuzendaritza eta Publizitatearen Arloko Multimedia Errealizazioa.

**Pertsona sortzaile eta berritzailea bazara, kulturaren, publizitatearen eta komunikazioaren munduarekin lotutako gaiak interesatzen bazaizkizu eta teknologia berriak oso gustuko badituzu, Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua duzu aukerarik onena.**

## Titulazio honek gaitasuna emango dizu...


Publizitatearen eta harreman publikoen teoriak ulertzeko, iturri desberdinetako informazioa aztertzeko, gertaerak eta proiektu komunikatiboak modu kritikoan baloratzeko, publizitateko eta harreman publikoetako proiektuetan estrategiak eta ekintzak diseinatzeko, komunikazio arazoan aurrean irtenbide sortzaileak aplikatzeko, erraztasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko, eta merkatuak eskatzen dituen publizitate eta harreman publikoen arloko profil profesional desberdinetan lan esperientzia eskuratzeko.

## Irteera profesionalak:

Agentzietan, harreman publikoetako eta komunikazioko kabineteetan, enpresetan, eta erakunde publiko zein pribatuetan:

- Ikerketa eta plangintza estrategikoa
- Komunikazioaren kudeaketa eta produkzioa
- Publizitate sormena
- Diseinu grafikoa eta web diseinua
- Hedabideen kudeaketa eta plangintza
- Marketina
- Erakunde irudia

Eta irakaskuntzan eta ikerkuntzan ere bai.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

---

## IKASKETA PLANA

---

### LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Ingurune Ekonomikoaren Analisia
- Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala
- Ikus-entzunezko Hizkuntza
- Berrien Idazkera
- Euskararen Erabilerak Komunikabideetan

#### 2. lauhilekoa

- Komunikazioa eta Publizitatea: Pertsuasio-estrategiak
- Komunikazioari Aplikatutako Estatistika
- Informazio Generoak
- Gaur Egungo Munduaren Historia
- Ikus-entzunezko Sormen Teknikak

---

### BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Web Edukien Idazkera eta Sorkuntza
- Dokumentazio Iturrien Kudeaketa
- Marketina: Kontzeptuak, Estrategiak eta Teknikak
- Harreman Publikoen Teoria
- Publizitate eta Harreman Publikoetako Sistemak eta Prozesuak

#### 2. lauhilekoa

- Publizitate Idazkera
- Harreman Publikoen Teknikak
- Publizitatearen Historia
- Pentsamendu Politikoaren Historia
- Komunikazioko Ikerketa Metodoak

---

### HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 36 kreditu + hautazko 24 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Diseinu Grafikoa
- Hedabideen Plangintza I

#### Hautazkoak

- Komunikazioaren Eraginkortasuna
- Marketin Digitala (1A)
- Arte Zuzendaritza (2A)
- Ikus-entzunezko Narratiba (2A)

#### 2. lauhilekoa

- Hedabideen Plangintza II
- Sormena
- Informazioaren Zuzenbidea
- Nazioarteko Harremanak

#### Hautazkoak

- Diseinu Grafiko Aplikatua (2A)
- Bozeramaileen Prestakuntza (1A)
- Euskara eta Euskal Kultura

#### Prestakuntza Duala \*

---

### LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 24 kreditu + hautazko 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Marketin Estrategikoa eta Interaktiboa
- Kontsumoaren Psikosoziologia eta Marketina

#### Hautazkoak

- Komunikazioaren Kudeaketa Nazioarteko Erakundeetan (1A)
- Sormena II (2A)
- Publizitateko Multimedia Errealizazioa (2A)
- Komunikazioa Euskaraz: Ahozko Adierazpena Komunikabideetan

#### 2. lauhilekoa

- Publizitatearen Zuzenbidea
- Komunikazio Estrategikoa eta Operazionala

#### Hautazkoak

- Marketineko Ikerketa
- Komunitate Birtualen Kudeaketa (1A)
- Komunikazio Publikoaren Zuzendaritza (1A)
- Estetika Korrante Garaikideak

#### Prestakuntza Duala \*

#### GRADU AMAIERAKO LANA \*

#### Hautazko irakasgaiak: 3. maila eta 4. maila

- Komunikazioa, Generoa eta Masa Kultura Mundu Garaikidean (2. lauhilekoa)

\* Unibertsitatea-Enpresa Prestakuntza Duala egiten duten ikasleek nahitaez enpresan egin beharko dituzte irakasgai hauek eta GRADU AMAIERAKO LANA.

---

### AIPAMENAK

- Komunikazioaren Arloko Zuzendaritza (1A)
- Sormena (2A)

---

### IBILBIDEA

- Prestakuntza Duala Unibertsitatea-Enpresa



## SOZIOLOGIAKO GRADUA

### Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Nola funtzionatzen du gizarteak? Boto asmoa iragartzerik ba al dugu? Zer nolako eragina daukate sare sozialek eta internetek gure bizitzan? Nola egin dakieke aurre gizarte desberdintasunei? Eta nola jakin dezakegu alde aurretik zenbaterainoko arrakasta izango duen app batek edo garbitzeko produktu batek? Gurekin zerikusia duten eta kezka sortzen diguten galderak dira, eta Soziologiak dauka horien eta beste askoren erantzuna.

XXI. mendeak gizarte errealitate global berri bat ekarri digu, oso azkar aldatzen dena eta dudarik gabe teknologia berrien eraginpean dagoena. Soziologiako Graduan aztergai izango dituzu gizarte bizitza, gizarte aldaketa, kultura aniztasuna, taldeak eta komunitateak, eta horien arteko harremanak eta interakzioa, eta metodo zientifikoak erabiliko dituzu gizarte arazo konplexuei erantzuteko. Gainera, hiru aipamen edo ibilbide izango dituzu espezializatzeko: Gizarte Arazoen Analisia eta Kudeaketa; Gizarte Ongizatea; eta Gizarte Erakundeak, Sareak eta Prozesuak.

**Begi zorrotzeko pertsona bazara, zure gizartean eta beste gizarte batzuetan gertatzen dena ulertu nahi baduzu, gizarte fenomenoek jatorria eta zergatiak aditu nahi badituzu, eta arazoak identifikatu eta aztertu nahi badituzu irtenbideak proposatu eta gizartea hobetzen laguntzeko, Soziologiako Gradua da zure lekua.**



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

### Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Gizarte arazoak eta premiak aztertzeko, praktika sozialen aurrean jarrera kritikoa izateko, politika publikoko eta esku-hartze sozialeko proiektuak diseinatzeko eta kudeatzeko, erakunde publiko eta pribatuetan hezkuntza politika eta programak diseinatzeko eta ebaluatzeko, erakunde publiko eta pribatuetan kudeaketa estrategiak garatzeko, ikerketa soziologiko bat egiteko, ikerketa soziologikoko txosten bat lantzeko eta aurkezteko, eta azterketa soziologikoetan zorrotasun intelektual eta etikoa erabiltzeko.

### Irteera profesionalak:

Hainbat arlo profesional eta lanbideetan, sektore publikoan zein pribatuan: enpresetan, administrazio publikoetan, fundazioetan, elkarteetan, gobernuz kanpoko erakundeetan eta unibertsitateetan, besteak beste.

- Gizarte ikerketa aplikatua
  - Politika publikoen eta ekintza planen (hirigintza, ingurumena, kultura, hezkuntza...) diseinua, kudeaketa eta ebaluazioa
  - Gizarte eta komunitateko esku-hartzea: berdintasunik eza, diskriminazioa eta gizarte bazterketa
  - Garapenerako lankidetzak
  - Galdeketak eta merkatu azterketak
  - Coaching-a eta giza baliabideen kudeaketa
- Eta irakaskuntzan eta ikerkuntzan ere bai.

---

## IKASKETA PLANA

---

### LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Politika Zientziako Oinarrizko Kontzeptuak
- Konstituzioa eta Globalizazioa
- Ekonomia Politikoa
- Analisi Soziologikoaren Oinarriak
- XX. Mendeko Historia Politikoa eta Soziala

#### 2. lauhilekoa

- Analisi Politikoaren Oinarriak
  - Gizarte Erakunde eta Prozesuak
  - Gizarte eta Politika Ikerketarako Sarrera
  - Gizarte Psikologia
  - Nazioarteko Harremanak
- 

### BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Espainiaren eta Euskal Herriaren XX. Mendeko Historia
- Gizarte Ikerketa Kualitatiboa
- Gizarte Ikerketa Kuantitatiboa: Inkesta eta Bigarren Mailako Datuak
- Eguneroko Bizitzaren Soziologia
- Teoria Soziologikoa I

#### 2. lauhilekoa

- Gizarte Egitura
  - Datuen Kudeaketa eta Analisi Estatistikoa I
  - Ikerketako Tailerra
  - Teoria Soziologikoa II
  - Komunikazioaren Teoriak
- 

### HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 42 kreditu + hautazko 18 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Datuen Kudeaketa eta Analisi Estatistikoa II
- Gizarte Ikerketa Kualitatibo Aurreratua
- Teoria Soziologikoa III

#### Hautazkoak

- Ongizatea, Gizarte Politikak eta Hiritartasuna (1A)
- Kultura, Aisia eta Kontsumoa (2A)
- Iritzi Publikoa (2A)

#### 2. lauhilekoa

- Hiri Soziologia
- Populazioaren Teoria eta Azterketa
- Azterketa Kuantitatibo Aurreratua
- Proiektuak Diseinatu eta Egitea

#### Hautazkoak

- Aniztasuna, Desberdintasuna eta Gizarte Bazterketa (1A)
  - Gizarte eta Ingurumena (1A)
  - Herri Parte-hartzerako Prozesuak eta Metodoak
  - Erakundearen eta Enpresaren Soziologia
  - Euskara eta Euskal Kultura
- 

#### Prestakuntza Duala \*

### LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 24 kreditu + hautazko 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Gizarte Berrikuntza eta Aldaketa
- Hezkuntzaren Soziologia

#### Hautazkoak

- Migrazioen Soziologia (1A, 2A)
- Osasunaren Soziologia (1A)
- Familia eta Gizarte Aldaketa (1A, 2A)
- Komunikazioa Euskaraz: Gizarte eta Hizkuntza Praktikak (2A)

#### 2. lauhilekoa

- Generoaren Soziologia
- Soziologia Politikoa

#### Hautazkoak

- Zientzia, Teknologia eta Gizarte
  - Identitatearen eta Nazionalismoen Soziologia (2A)
  - Ekonomiaren Gizarte Dimentsioak (1A)
- 

#### Prestakuntza Duala \*

#### GRADU AMAIERAKO LANA \*

\* Unibertsitatea-Enpresa Prestakuntza Duala egiten duten ikasleek nahitaez enpresan egin beharko dituzte irakasgai hauek eta GRADU AMAIERAKO LANA.

---

## AIPAMENAK

- Desberdintasunen Analisia eta Gizarte Politiken Kudeaketa (1A)
  - Kultur, Identitate eta Hizkuntza Aniztasunaren Analisia (2A)
- 

## IBILBIDEA

- Prestakuntza Duala Unibertsitatea-Enpresa
-



## POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOKO GRADUA

### Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Politikak pertsona guztien egunerokoa blaitzen du, haien interakzio pertsonal eta profesional bakoitza. Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Graduaren bidez, Administrazio Publikoaren egitura eta funtzionamendua ez ezik, Gobernuarenak eta Legebiltzarrenak ere ezagutuko dituzu. Zure trebakuntzaren oinarria izango dira ideia politikoak eta haien jatorriak, gizarte mugimenduak, alderdi politikoak eta hauteskunde prozesuak.

Arreta berezia jartzen da inguruko sistema politikoetan, alhora utzi gabe Europako eta munduko erreferentziatzko beste eredu batzuk. Gainera, graduak prestakuntza sendo bat emango dizu nazioarteko harremanetan.

Irakasgai instrumentalen bidez, ikerketa teknikak ezagutuko dituzu (inkestak, elkarrizketa sakonak, eztabaida taldeak), eta politika publikoen edo programa politikoaren diseinua eta implementazioa. Funtsezkoa zure etorkizuneko lanbidearentzat.

Aukera izango duzu hiru aipamen edo ibilbide hauetako batean espezializatzeko: Analisi edo Consulting Politikoa, Analisi eta Kudeaketa Publikoa, edo Nazioarteko Harremanak.

**Mundu globaleko gatazka sozial eta politikoek arduratzen bazaituzte, gaurkotasuna duten gai eta erronkak interesatzen bazaizkizu, Nazioarteko harremanek erakartzen bazaituzte, gai politikoak eta herritarrek parte hartzea oso gustuko badituzu, eta, horrez gain, erakunde politikoek eta zure inguruko eta munduko administrazio publikoek nola funtzionatzen duten ezagutu nahi baduzu, Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduan aurkituko duzu zure grina asetzeko leku egokia.**



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

### Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Ingurune politikoaren fenomenoak behatzeko teoriak ulertzeko, arazo politikoak eta gizartearen premiak aztertzeko, administrazioaren plangintza eta kudeaketarako prozesuak ezartzeko, erakunde eta sistema politikoaren egitura ulertzeko, nazioarteko politika ulertzeko, politika publikoak planifikatu eta ebaluatzeko, komunikazio politikoko kanpainak diseinatzeko, eta fenomeno politikoak eta erakundeetakoak aztertzeko adierazleak sortzeko.

### Irteera profesionalak:

Administrazio Publikoa Ingurunea:

- Funtzio Publiko orokorra
- Funtzio Publiko espezifikoa: Berdintasun teknikaria, Partaidetza
- Tokiko garapeneko agenteak
- Gizarte ikerketan diharduten enpresa pribatuak
- Aholkularitza enpresak politika publikoaren elaborazio, diseinu eta ebaluazioan

Analisi edo Consulting Politikoa:

- Karrera Politikoa
- Politika eta hauteskunde aholkularitza enpresei eta alderdi politikoei
- Aholkulariak komunikazio edo irudi publikoan

Nazioarteko harremanak:

- Karrera diplomatikora sartzeko oinarria
- Nazioarteko erakundeetako aholkularitza eta kudeaketa
- Funtzio Publikoa Europar Batasunean

Eta irakaskuntzan eta ikerkuntzan ere bai.

## IKASKETA PLANA

### LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Politika Zientziako Oinarrizko Kontzeptuak
- Konstituzioa eta Globalizazioa
- Ekonomia Politikoa
- Analisi Soziologikoaren Oinarriak
- XX. Mendeko Historia Politiko eta Soziala

#### 2. lauhilekoa

- Analisi Politikoaren Oinarriak
- Gizarte Erakunde eta Prozesuak
- Gizarte eta Politika Ikerketarako Sarrera
- Gizarte Psikologia
- Nazioarteko Harremanak

### BIGAREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Gobernua eta Administrazio Publikoa
- Pentsamendu Politikoaren Historia
- Gizarte Ikerketa Kuantitatiboa
- Gizarte Ikerketa Kuantitatiboa: Inkesta eta Bigarren Mailako Datuak
- Ordezkaritza eta Alderdi Politikoak

#### 2. lauhilekoa

- Portaera Politikoa
- Konstituzio Zuzenbidea
- Datuen Kudeaketa eta Analisi Estatistikoa I
- Teoria Politiko Garaikidea
- Komunikazioaren Teoriak

### HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 42 kreditu + hautazko 18 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Politika Publikoen Analisia
- Administrazio Zuzenbidea
- Politika Konparatua
- Datuen Kudeaketa eta Analisi Estatistikoa II

#### Hautazkoak

- Nazioarteko Antolakuntza (3A)

#### 2. lauhilekoa

- Europako Integrazioa
- Azterketa Kuantitatibo Aurreratua
- Proiektuak Diseinatu eta Egitea

#### Hautazkoak

- Gaur Egungo Nazioarteko Politika (3A)
- Sektore Publikoaren Ekonomia (2A)
- Euskal Gobernantza Ekonomikoa: Finantziarioa eta Aurrekontuak
- Euskara eta Euskal Kultura

#### Prestakuntza Duala \*

### LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 24 kreditu + hautazko 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 12 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Identitate eta Ideologia Politikoak
- Antolakuntza, Kudeaketa eta Erabaki Publikoa
- Espainiako eta Euskadiko Sistema Politikoa

#### Hautazkoak

- Diplomazia eta Kanpo Politika (3A)
- Komunikazioa Euskaraz: Gizartea eta Hizkuntza Praktikak

#### 2. lauhilekoa

- Globalizazioa eta Munduko Sistema Ekonomikoa

#### Hautazkoak

- Gatazken Analisia eta Ebazpena (3A)
- Nazioarteko Gizartearen Arazo Globalak (3A)
- Euskal Ekonomia Mundu Globalizatuan
- Esku-hartzeko Teknikak Administrazioan (2A)

#### Prestakuntza Duala \*

#### GRADU AMAIERAKO LANA \*

#### Hautazko irakasgaiak: 3. maila eta 4. maila

#### 1. lauhilekoa

- Komunikazio eta Marketin Politikoa (1A)
- Gatazka Politikoa eta Ekintza Kolektiboa (1A)
- Politika Publikoen Ebaluazioa (2A)
- Genero eta Politika (1A, 2A)
- Tokiko Gobernua (1A, 2A)

#### 2. lauhilekoa

- Hauteskunde Analisia eta Prospektiba (1A)
- Aldaketa eta Berrikuntza Publikoa (2A)
- Giza Baliabideen Kudeaketa (2A)
- Gobernantza eta Maila Anitzeko Gobernua (2A)
- Interes Taldeak eta Gizarte Mugimenduak (1A)
- Parte-hartze Politikoa (1A)
- Sistema Politikoak Munduan (1A)
- Garaiko Politikaren Teoria II (1A)

\* Unibertsitatea-Enpresa Prestakuntza Duala egiten duten ikasleek nahitaez enpresan egin beharko dituzte irakaskai hauek eta GRADU AMAIERAKO LANA.

#### AIPAMENAK

- Analisi eta Aholkularitza Politikoa (1A)
- Analisi eta Kudeaketa Publikoa (2A)
- Nazioarteko Harremanak (3A)

#### IBILBIDEA

- Prestakuntza Duala Unibertsitatea-Enpresa

## Gradu Bikoitza

# IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA + KAZETARITZA

### Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Komunikazioaren garrantzia oso handia da gizarteko eremu guztietan. Gainera, oso arin aldatzen ari den arloa da, horregatik inoiz baino beharrezkoagoa da komunikazioaren arloko etorkizuneko profesionalentzako kalitatezko prestakuntza.

Ikus-entzunezko Komunikazioa + Kazetaritza Gradu Bikoitzaren helburua da komunikazio profil profesional moldaerrazagoa sortzea, ingurune hibrido eta aldakorra batean erraz moldatzeko gai dena. Gradu Bikoitza honek prestatu egingo zaitu ikus-entzunezko proiektu berritzaileak sortu eta gauzatzeko egungo formatu eta euskarrietan (zinema, telebista, Internet, irrati digitala eta multimedia eta transmedia teknologia berriak, besteak beste) eta beharrezko trebakuntza emango dizu XXI. mendeko komunikazio korporatiboak eta hedabideek behar dituzten zeregin profesioaletan aritzeko.

Irrati eta argazki laborategiak, telebista platoak, video ediziorako gelak, audio eta bideo digital postproduziorako laborategiak eta grabaziorako ENG ekipo osoak, komunikazioko espezialista bilakatzeko bidean, zure esku izango dituzun baliabideetako batzuk baino ez dira.

**Jakingura handiko pertsona bazara, sortzailea eta berritzailea, zure inguruan gertatzen dena interesatzen bazaizu eta komunikazioaren mundua oso gustuko baduzu, Ikus-entzunezko Komunikazioa + Kazetaritza Gradu Bikoitza da zure lekua.**



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

### Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Komunikazioaren teoriak ulertu eta praktikan jartzeko, gizarte prozesuak eta gertaerak aztertu eta azaltzeko, informazio lanei kazetaritza genero eta formatu desberdinak aplikatzeko, gertaerak eta proiektu komunikatiboak modu kritikoan aztertu eta baloratzeko, iturri desberdinetako informazioa aztertzeko, edukiak forma eta estrategia narratiboetara moldatuz, komunikazio-formatu desberdinetako edukien alderdi formal eta estetikoak diseinatzeko, ahoz zein idatziz erraztasun eta eraginkortasunez komunikatzeko, informazio edo komunikazio proiektuak behar bezala planifikatzeko eta kudeatzeko, eta talde lanerako gaitasunak garatzeko.

### Irtenbide profesionalak:

Hedabideetan, produktoretan, multimedia enpresetan, enpresa eta erakundeetako Komunikazio kabineteetan eta komunikazio agentzietan, besteak beste:

- Ikus-entzunezkoen zuzendaritza eta errealizazioa
- Ikus-entzunezkoen produkzioa eta kudeaketa
- Ikus-entzunezkoen eta euskarri grafikoaren edizioa eta postprodukzioa
- Ikus-entzunezko edukien eta multimedia edukien sorrera eta garapena
- Ikus-entzunezko edukien, transmedia edukien eta multimedia edukien programazioa
- Programa, erreportaje, gidoi, eta abarren zuzendaritza eta produkzioa
- Prentsa bulegoen edo erakundeetako komunikazio bulegoen zuzendaritza

Eta irakaskuntzan eta ikerkuntzan ere bai.



---

## IKASKETA PLANA

---

### LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Ingurune Ekonomikoaren Analisia
- Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala
- Ikus-entzunezko Hizkuntza
- Berrien Idazkera
- Euskararen Erabilerak Komunikabideetan

#### 2. lauhilekoa

- Komunikazioa eta Publizitatea: Pertsuasio-estrategiak
- Komunikazioari Aplikatutako Estatistika
- Informazio Generoak
- Gaur Egungo Munduaren Historia
- Ikus-entzunezko Sormen Teknikak

---

### BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Web Edukien Idazkera eta Sorkuntza
- Dokumentazio Iturrien Kudeaketa
- Ikus-entzunezko Narratiba
- Ikus-entzunezko Sormen Prozesuak
- Zinema Klasikoaren Historia

#### 2. lauhilekoa

- Multimedia eta Transmedia Narratibak
- Gizarte Komunikazioaren Historia Orokorra
- Informazioa Telebistan
- Komunikazio Teoriak
- Deontologia eta Hedabideak

---

### HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 42 kreditu + hautazko 18 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Informazioa Irratian
- Konstituzio Zuzenbidea
- Kazetaritzaren Teknologia
- Gidoigintza I: Fikzioa
- Errealizazioa I

#### 2. lauhilekoa

- Irrati Ekoizpena eta Errealizazioa
- Zinema Modernoaren eta Garaikidearen Historia
- Pentsamendu Politikoaren Historia
- Komunikazioko Ikerketa Metodoak
- Hautazkoa I

---

### LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 54 kreditu + hautazko 6 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Interpretazio Generoak
- Fotokazetaritza
- Komunikazio Bulegoak
- Kazetaritza Diseinuaren Oinarriak
- Hautazkoa II

#### 2. lauhilekoa

- Gidoigintza II: Ez-fikziozko Programak
- Errealizazioa II
- Informazioaren Zuzenbidea
- Nazioarteko Harremanak
- Hautazkoa III

---

### BOSGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko 48 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 24 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Informazio Lokuzioa
- Erreporterismoa
- Ikusizko Formen Analisia
- Ekoizpenaren Kudeaketa

#### 2. lauhilekoa

- Iritzi Generoak
- Kazetaritza Espezializatua
- Komunikazioaren Egungo Joerak
- Komunikazio Sistemaren Egitura

**Gradu Amaierako Lana I**

**Gradu Amaierako Lana II**



## Gradu Bikoitza

# KAZETARITZA + PUBLIZITATEA ETA HARREMAN PUBLIKOAK

### Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Komunikazioak berebiziko garrantzia dauka enpresen eta erakundeen edozein estrategiatan. Era berean, gaur egongo komunikazio ingurune konplexuak gaurkotasuna kontatzeko modu berriak aztertze aukera handia ematen du. Enpresa, instituzio, erakunde edota hedabide batean, komunikatzaileak beharrezkoak dira publikoari inguruko errealitate desberdinak azaltzeko. Entzuleria, hedabide eta testuinguru mota bakoitzari egokituak istorioak kontatzen ikasiko duzu, hainbat formatutan: albiste, elkarrizketa edo erreportaje gisa, bai eta spot, banner digitala edo prentsaurreko gisa ere.

Kazetaritza + Publizitatea eta Harreman Publikoak Gradu Bikoitzak beharrezko trebakuntza emango dizu XXI. mendeko komunikazio korporatiboak eta hedabideek behar dituzten zeregin profesioaletan aritzeko, eta emango dizun prestakuntzarekin gai izango zara komunikazio kanpaina integralak diseinatu eta sortzeko, eraginkorrak eta XXI. mendeko hedabideetara egokituak (internet, telebista, irratia, zinema, multimedia teknologia berriak eta telefonia mugikorra). Era guztietako proiektu profesionalak egiten ikasiko duzu kazetaritza zein publizitate formatu desberdinetan.

**Jakingura handiko pertsona bazara, sortzailea eta berritzailea, zure inguruan gertatzen dena interesatzen bazaizu, jarrera kritikoa duzu eta komunikazioaren zein istorioen mundua oso gustuko baduzu, Kazetaritza + Publizitatea eta Harreman Publikoak Gradu Bikoitza gogoko izango duzu.**



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

### Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Komunikazioaren teoriak ulertzeko, gizarte prozesuak eta gertaerak aztertu eta azaltzeko, informazio lanei kazetaritza genero eta formatu desberdinak aplikatzeko, iturri desberdinetako informazioa aztertze, edukiak forma eta estrategia narratiboetara moldatuz, hedabide desberdinetako edukien alderdi formal eta estetikoak diseinatzeko, komunikazio arazoaren aurrean irtenbide sortzaileak aplikatzeko, ahoz zein idatziz erraztasun eta eraginkortasunez komunikatzeko, informazio, publizitateko eta harreman publikoetako proiektuak behar bezala planifikatzeko eta kudeatzeko, eta talde lanerako gaitasunak garatzeko.

### Irtenbide profesionalak:

Hedabideetan, ekoizpen etxeetan, komunikazio eta publizitate agentzietan, enpresa eta erakundeetako Komunikazio kabineteetan:

- Programa, erreportaje, gidoi, transmedia produktu eta abarren zuzendaritza, produkzioa eta idazketa
- Editore grafikoa
- Web atariaren kudeaketa eta edizioa, eta euskarri grafikoaren edizioa
- Prentsa bulegoen edo erakundeetako komunikazio bulegoen zuzendaritza
- Komunikazioaren arloko aholkularitza eta zuzendaritza
- Ikerketa eta plangintza estrategikoa
- Publizitate sormena
- Multimedia edukien edizioa, produkzioa eta kudeaketa
- Marketina
- Erakunde irudia

Eta irakaskuntzan eta ikerkuntzan ere bai.

---

## IKASKETA PLANA

---

### LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Ingurune Ekonomikoaren Analisia
- Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala
- Ikus-entzunezko Hizkuntza
- Berrien Idazkera
- Euskararen Erabilerak Komunikabideetan

#### 2. lauhilekoa

- Komunikazioa eta Publizitatea: Pertsuasio-estrategiak
- Komunikazioari Aplikatutako Estatistika
- Informazio Generoak
- Gaur Egungo Munduaren Historia
- Ikus-entzunezko Sormen Teknikak

---

### BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Web Edukien Idazkera eta Sorkuntza
- Dokumentazio Iturrien Kudeaketa
- Marketina: Kontzeptuak, Estrategiak eta Teknikak
- Harreman Publikoen Teoria
- Publizitate eta Harreman Publikoetako Sistemak eta Prozesuak

#### 2. lauhilekoa

- Multimedia eta Transmedia Narratibak
- Gizarte Komunikazioaren Historia Orokorra
- Informazioa Telebistan
- Komunikazio Teoriak
- Deontologia eta Hedabideak

---

### HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Informazioa Irratian
- Konstituzio Zuzenbidea
- Kazetaritzaren Teknologia
- Diseinu Grafikoa
- Hedabideen Plangintza I

#### 2. lauhilekoa

- Publizitate Idazkera
- Harreman Publikoen Teknikak
- Publizitatearen Historia
- Pentsamendu Politikoaren Historia
- Komunikazioko Ikerketa Metodoak

---

### LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 48 kreditu + hautazko 12 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Interpretazio Generoak
- Fotokazetaritza
- Komunikazio Bulegoak
- Kazetaritza Diseinuaren Oinarriak
- Hautazkoa I

#### 2. lauhilekoa

- Hedabideen Plangintza II
- Sormena
- Informazioaren Zuzenbidea
- Nazioarteko Harremanak
- Hautazkoa II

---

### BOSGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko 48 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 24 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Informazio Lokuzioa
- Erreporterismoa
- Marketin Estrategikoa eta Interaktiboa
- Kontsumoaren Psikosoziologia eta Marketina

#### 2. lauhilekoa

- Iritzi Generoak
- Kazetaritza Espezializatua
- Publizitatearen Zuzenbidea
- Komunikazio Estrategikoa eta Operazionala

**Gradu Amaierako Lana I**

**Gradu Amaierako Lana II**



## Gradu Bikoitza

# POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA + SOZIOLOGIA

### Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

XXI. mendeak gizarte errealitate global berri bat ekarri digu, oso azkar aldatzen dena eta duarik gabe teknologia berrien eraginpean dagoena. Testuinguru horretan, politikak pertsona guztien egunerokoa blaitzen du, haien interakzio pertsonal eta profesional bakoitza.

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa + Soziologia Gradu Bikoitzak beharrezko trebakuntza emango dizu gizarte errealitatea ulertzeko eta ezaguera kritikotik aztertzeko, baita politikaren konplexutasuna zehaztasunez eta sakontasunez aztertzeko ere.

Aztergai izango dituzu gizarte bizitza, kultura aniztasuna, taldeak eta komunitateak, eta horien arteko harremanak eta interakzioa, Administrazio Publikoaren egitura eta funtzionamendua ideia politikoak eta haien jatorriak, gizarte mugimenduak, alderdi politikoak, hauteskunde prozesuak, nazioarteko harremanak, eta Administrazio Publikoaren, Gobernuaren eta Legebiltzarraren egitura zein funtzionamendua.

Hainbat metodo zientifiko ezagutu eta erabiliko dituzu gizarte zein politikako arazo konplexuei erantzuteko.

**Begi zorrotzeko pertsona bazara, gizarte fenomenoek jatorria eta zergatiak aditu nahi badituzu, gatazka sozial eta politikoek arduratzen bazaituzte, nazioarteko harremanek erakartzen bazaituzte, gai politikoak eta herritarrek parte-hartzea oso gustuko badituzu, Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa + Soziologia Gradu Bikoitza da zure lekua.**



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

### Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Ingurune politikoaren eta gizartearen fenomenoak behatzeko teoriak ulertzeko, arazo politikoak eta gizartearen premiak aztertzeko, praktika sozialen aurrean jarrera kritikoa izateko, politika publikoko eta esku-hartze sozialeko proiektuak diseinatzeko eta kudeatzeko, administrazioaren plangintza eta kudeaketarako prozesuak ezartzeko, erakunde eta sistema politikoaren egitura ulertzeko, nazioarteko politika ulertzeko, komunikazio politikoko kanpainak diseinatzeko, eta ikerketa soziologikoak eta fenomeno politikoak eta erakundeetakoak aztertzeko txostenak lantzeko eta aurkezteko.

### Irtenbide profesionalak:

Hainbat arlo profesional eta lanbidetan, sektore publikoan zein pribatuan: enpresetan, administrazio publikoetan, fundazioetan, elkarteetan, gobernu kanpoko erakundeetan eta unibertsitateetan, besteak beste.

- Gizarte ikerketa aplikatua
- Politika publikoen eta ekintza planen diseinua, kudeaketa eta ebaluazioa
- Gizarte eta komunitateko esku-hartzea: berdintasunik eza, diskriminazioa eta gizarte bazterketa
- Garapenerako lankidetzak
- Galdeketak, hauteskunde eta merkatu azterketak
- Coaching-a eta giza baliabideen kudeaketa
- Aholkulariak komunikazio edo irudi publikoan
- Nazioarteko erakundeetako aholkularitza eta kudeaketa

Eta irakaskuntzan eta ikerkuntzan ere bai.

---

## IKASKETA PLANA

---

### LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Politika Zientziako Oinarrizko Kontzeptuak
- Konstituzioa eta Globalizazioa
- Ekonomia Politikoa
- Analisi Soziologikoaren Oinarriak
- XX. Mendeko Historia Politiko eta Soziala

#### 2. lauhilekoa

- Analisi Politikoaren Oinarriak
- Gizarte Erakunde eta Prozesuak
- Gizarte eta Politika Ikerketarako Sarrera
- Gizarte Psikologia
- Nazioarteko Harremanak

---

### BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Gizarte Ikerketa Kualitatiboa
- Gizarte Ikerketa Kuantitatiboa: Inkesta eta Bigarren Mailako Datuak
- Espainiaren eta Euskal Herriaren XX. Mendeko Historia
- Eguneroko Bizitzaren Soziologia
- Teoria Soziologikoa I

#### 2. lauhilekoa

- Portaera Politikoa
- Konstituzio Zuzenbidea
- Datuen Kudeaketa eta Analisi Estatistikoa I
- Teoria Politiko Garaikidea
- Komunikazioaren Teoriak

---

### HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 54 kreditu + hautazko 6 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Gobernua eta Administrazio Publikoa
- Pentsamendu Politikoaren Historia
- Ordezkaritza eta Alderdi Politikoak
- Datuen Kudeaketa eta Analisi Estatistikoa II
- Hautazkoa I

#### 2. lauhilekoa

- Gizarte Egitura
- Ikerketako Tailerra
- Teoria Soziologikoa II
- Analisi Kuantitatibo Aurreratua
- Proiektuak Diseinatu eta Egitea

---

### LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 48 kreditu + hautazko 12 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Politika Publikoen Analisia
- Administrazio Zuzenbidea
- Politika Konparatua
- Gizarte Ikerketa Kualitatibo Aurreratua
- Teoria Soziologikoa III

#### 2. lauhilekoa

- Europako Integrazioa
- Populazioaren Teoria eta Azterketa
- Hiri Soziologia
- Hautazkoa II
- Hautazkoa III

---

### BOSGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko 48 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 24 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Gizarte Berrikuntza eta Aldaketa
- Hezkuntzaren Soziologia
- Identitate eta Ideologia Politikoak
- Antolakuntza, Kudeaketa eta Erabaki Publikoa
- Espainiako eta Euskadiko Sistema Politikoa

#### 2. lauhilekoa

- Generoaren Soziologia
- Soziologia Politikoa
- Globalizazioa eta Munduko Sistema Ekonomikoa

Gradu Amaierako Lana I

Gradu Amaierako Lana II



## UPV/EHUren GRADUONDOKOEN ESKAINZA

Zure gradu-ikasketak amaitu ondoren, zure prestakuntza osatu ahal izango duzu graduondoko batekin. UPV/EHUK graduondoko 150 programa baino gehiago eskaintzen ditu zure etorkizun profesionala garatu nahi duzun alorrean espezializatu zaitez.



Gure unibertsitateko masterrak eta berezko tituluak hemen kontsulta ditzakezu:  
[www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak](http://www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak)

Eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitatea aukeratzeagatik. Itxaroten dizugu.

Liburuxka hau informazioa emateko baino ez da.  
Azken eguneraketa: 2024ko abendua.